

Elkartasun edo lankidetzaz jarduerak

HAUTAZKO KREDITUEN
AITORPENA ELKARTASUN
ETA LANKIDETZA
JARDUEREN BIDEZ



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Non egin dezaket boluntario lana?

Zeintzuk dira egin beharreko tramiteak?

Nola jaso dezaket prestakuntza?

Zer tramite egin behar dut kredituen aitortpena lortzeko?

1. URRATSA: HAUTATU ZER ERAKUNDEREKIN LAN EGIN ETA ZER JARDUERA EGIN

Kredituak lortu ahal izateko, honako elkarteetan egin behar dira elkartasun eta lankidetzaz jarduerak:

- Bolunta (Bizkaia), Gizalde (Gipuzkoa) eta Batekin (Araba) agentziek abalaturako erakundeak.
- UPV/EHUren berezko programak.
- Euskadi Boluntariotzaren Errolda Orokorrean erregistraturako boluntariotza erakundeak.
- Euskadiko garapenerako GKEen koordinakundearen erakundeak.



2. URRATSA: PRESTAKUNTZA JARDUERA BATEAN PARTE HARTU

Presta zaitetz boluntariotzaren arloan, boluntariotza agentziek edo UPV/EHUK berak eskaintzen dituzten ekintza eta ekitaldien bitartez.

3. URRATSA: ESKATU KREDITUEN AITORPENA UPV/EHUren GARAPENERAKO LANKIDETZA BULEGOARI

Eskatu ONLINE; elkartasun eta lankidetzak jarduerengatik kredituak aitortzeko ziurtagiria, horretarako ezarritako epeen barruan.

Eskaera egiteko bi dokumentu entregatu behar dituzu: I ERANSKINA (boluntariotza erakundeak eman eta sinatutako txostena) eta II ERANSKINA (ikasleek egin eta sinatutako txostena).

Hamabost egunen epean, ziurtagiria jasoko duzu posta elektronikoaren bidez.

4. URRATSA: AURKEZTU KREDITUEN AITORPENAREN ZIURTAGIRIA ZURE IKASTEGIKO IDAZKARITZAN

Elkartasun edo lankidetzak jardueretan parte hartzeagatik, kreditu 1 onartzen da 30 orduko arduraldi bakoitzeko eta 6 kreditu, gehienez, ikasketa planaren osotasuna kontuan hartuta.

KREDITUEN AITORPENA ESKATZEKO EPEAK

urtarrilean • ekainean • irailean

INFORMAZIO GEHIAGO JASOTZEKO

Iraunkortasunaren arloko zuzendaritza

<https://www.ehu.es/eu/web/iraunkortasuna/entitateetako-boluntariotza>

946017933 / 2855/ 2067

iraunkortasuna@ehu.es

Eraikina:

Biblioteka Nagusia, 6. solairua
48940 Bizkaiko campusa (Leioa)

